

## GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

**Barcina Lehendakariak krisi ekonomikotik  
"sendoturik" irteteko ausardia eta batasuna  
eskatzen ditu***"Geure etorkizunaren jabe gara" baieztatu du bere urte bukaerako  
mezuan.*

Viernes, 28 de diciembre de 2012

Yolanda Barcina  
Nafarroako Lehendakariak  
egun bizi dugun krisi  
ekonomikotik "sendoturik"  
irteteko ausardia eta batasuna  
eskatu ditu bere urte  
bukaerako mezuan .  
"Gure etorkizunaren jabe  
gara" baieztatu du. Eta,  
horregatik, nafarrak  
animatu ditu  
"etorkizunaren agintea sendotasunez hartu eta denok batera  
xede berdinerantz jo dezagun".



Barcina Lehendakaria urte bukaerako mezuan

Ildo horretatik, "banantzen gaituena alde batera uztera, batzen gaituena potentziaztera eta ahalegin guztia xede komun baten lorpenera, ezer baino gehiago desiratzen dugun horretara, bideratzera, alegia, guztiontzako ongizatea lortzera, gonbidatu gaitu". Horrela, "sendoturik irtengo dugu" eta "garrantzitsuena dena, datozen belaunaldiak etorkizun hobe utziko diegu".

Lehendakariak eragile ekonomikoak zuzeneko mezua bidali die, haiek ere "ausartak" izan daitezen adoretzen ditu. Halaber, "iritsi da inbertsiogile pribatuak arriskatzeko eta erneko diren hazietan inbertitzeko unea". "Aberastasunak aberastasuna erakartzen baitu, horretarako, ordea, bultzadaxo bat eman behar diogula" baieztatu du.

Bestalde, 2012. urtea "zailtasun handikoa" izan dela gogoratu du; Nafarroako Gobernuak "gustukoak izan ez diren" baina, era berean, "gure kolpatutako kontu publikoak saneatzeko eta ahalik eta azkarren hazkundearen bideari berrekiteko beharrezko erabakiak hartu behar izan ditu". Amaitzeko, "Positiboak izan gaitezten eta egoerari bira ematea lortuko dugu" esan du.